

MARX, NIETZSCHE, HEIDEGGER

MODERNITATEARI KRITIKA

Eba Aranburu Markaide
Aro Garaikideko Filosofiaren Historia

- **Sarrera**

Karl Marx, Friedrich Nietzsche eta Martin Heidegger filosofo ospetsuen planteamendu filosofikoak ekarri nahiko nituzke mahai gainera. Aurrerago ikusiko dugun bezala, hiru autoreek Modernitateari kritika egiten diote, perspektiba filosofiko ezberdinetatik bada ere eta beraien artean desparekotasunak edota jarrera kontrajarriak egon daitezkeen arren. Aro modernoarekiko kritikaren baitan, hiru planteamenduetan aurki ditzakegun hainbat elementu komun bistaratzea gustatuko litzaidake, nahiz eta proiektu filosofiko bakoitzak bere berezitasun propioak dituen. Hauen artean, mendebaldeko tradizio filosofikoan zehar -eta filosofia modernoan batez ere- indarrean egon den subjektu-objektu dikotomiari egindako kritika edota errealitatearen izaera historikoak hiru autoreetan hartzen duen garrantzia agerian uzten saiatuko naiz.

- **Marx**

Karl Marx XIX. mendetik hasita gaur egunera arte mundu osoan zehar eragin handiena izan duen pentsalarien artean kokatuko nuke. Marxek Ekonomia Politikoaren Kritika garatzen du; dena den, hau ezin dugu ulertu Ekonomia Politiko Klasikoaren jarraipen bezala, ekonomia politikoaren kritika bere osotasunean baizik.

Filosofia modernoan eskema ontologiko klasikoa ondorengo litzateke: batetik, objektua -kanpoko errealitatea- eta, bestetik, subjektua -kanpoko hori, objektua ezagutzen duen substantzia-. Batez ere Descartesetik abiatuta -ondoren Kantekin ere agerikoa izango dena- subjektua edo nia da erdigunean jarriko dena, hura hartuko baita subjektuarengandik at kokatzen den objektua giza-ahalmen zein kategorien bidez ezagut dezakeen agente aske gisa. Marxek, ordea, subjektu-objektu dikotomia modernoa kolokan jartzen du, agerian geratzen delarik filosofia modernoak emantzat jotzen duen aipatu eskema iraulita azaltzen dela gizarte zibil burgesean.

Hegelek bere *Fenomenología del espíritu* (1807) obrako IV. kapituluaren garatzen duen jauntxoaren eta morroiaren arteko dialektika hartzen du Marxek *Manuscritos: economía y filosofía* (1844) lanaren abiapuntu gisa. Morroia jauntxoaren menpekkoa da; hori dela eta,

morroia subjektu izatetik objektu izatera pasatzen da, menpekotasuna dagoen bitartean ez baitago askatasunik. Giza-subjektua -gizarte kapitalistan langile edo proletarioaren forma hartzen duena-, beraz, objektu bilakatzen da eta, era berean, langileak bere lanaren bitartez ekoizten duen produktua -kapitala, alegia- subjektu, kapitalak langilearen gainean dominazio bat gauzatzen duelarik. Horrela, gizarte kapitalistaren nolakotasunean sakontzerakoan, egitura ontologiko modernoak kontrako forma eskuratzen duela ikus daiteke; hots, hasiera batean askea zen subjektua orain objektu izatera igaro da, langilea merkantzia batera murriztuz. Honela adierazten du Marxek: “el objeto que el trabajo produce, su producto, se enfrenta a él como un *ser extraño*, como un *poder independiente* del productor” (Marx, 1844: 105). Horrela, langileak bere bizitza objektuan jartzen du, baina momentu horretatik aurrera bere bizitza ez da iada berea izango, objektuarena baizik. Marxek fenomeno hau alienazio edo enajenazio gisa izendatzen du: “la *enajenación* del trabajador en su producto significa no solamente que su trabajo se convierte en un objeto, en una existencia *exterior*, sino que existe *fuera de él*, independiente, extraño, que se convierte en un poder independiente frente a él; que la vida que ha prestado al objeto se le enfrenta como cosa extraña y hostil” (Marx, 1844: 106).

Bestalde, alienazioaren fenomenoarekin batera, Marxen arabera, ekonomia politiko burgesaren eskutik errealitatearen mistifikazioa ematen da, *El Capital* obran zehaztasun zein sakonera handiz agerian geratzen dena. Lan horretako lehenengo bolumenean “El fetichismo de la mercancía (y su secreto)” delako atala aurkitzen dugu. Bertan, merkantzia kategoriak ezkutatzen duena azaleratzen du pentsalari alemanak. Ezer baino lehen, merkantzia batek, alde batetik, erabilera balioa du, bere ezaugarriak direla-eta giza beharrak asetzeko gai baita. Gizakiak, bere lanaren bitartez, naturan agertzen zaizkigun lehengaiak moldatzen eta eraldatzen ditu erabilgarriak izan daitezen -beharrizan sozialak asetzera begira-. Esaterako, egurra moldatuz mahai bat ekoitz dezakegu. Aldiz, behin mahai merkaturatzen denean, sentsiblea den objektu bat izatetik (zentzumenez hautemangarria dena) mahaiak zentzumenez gaindiko izaera eskuratzen du, izaera soziala. Hau da, merkaturatutako produktuak merkantzia kategoria eskuratzen duenean, merkantzia izaera honek, erabilera balioaz gain -erabilgarritasunari lotzen zaiona-, truke balio bat egozten dio produktuari. Hori dela eta, nolakotasun material erabat ezberdinak dituzten merkantziak berdindu eta elkarrekin truka daitezke. Produktu orok balio bera -trukerako gaitasuna edo ezaugarria- hartzen duen heinean, bakoitzak bere nolakotasuna galtzen du, hau da, merkantzia baten balioa beste

merkantzien arabera zehazten da proportzionalki; beraz, balioak baliorik ez duela adieraz liteke, dena baita trukagarria.

Bide horretatik, objektuek berezko ezaugarri bat -proportzio jakin batzuetan aldatzekoa edo trukatzekoa- dutela pentsatzera iristen dira produktuen ekoizleak. Merkantzien hartu-emanean horien balio kantitateak etengabe aldatzen direnean, merkantzien mugimendu soziala objektuen beraien mugimendu gisa agertzen da, horiek ekoizleengandik aparteko borondatea dutela ematen duelarik. Hots, lanaren produktuen izaera soziala objektuen berezko propietate kontsideratzen da. Hori dela eta, merkantzia formaren izaera misteriotsua honetan datza: merkantziak gizakien lanaren izaera soziala produktuen ezaugarri natural bezala aurkezten du. Hurrela, lan globalaren eta ekoizleen artekoa den harreman soziala objektuen arteko harreman sozial gisa azaleratzen da. Gauza bat bestearengatik hartze horren bitartez bihurtzen dira ekoizpenak merkantzia. Horrenbestez, produktu bat merkantzia bilakatzeko prozesuarekin batera ematen da fetitxismoaren fenomeno; hots, esan daiteke merkantzia formak iada bere baitan daukala izaera fetitxista hori.

Carlos Castilla del Pino psikiatrak bere *Psicoanálisis y marxismo* obran fetitxismoaren fenomeno harreman interpersoneletara eramaten du. Balio objektuaren propietate gisa hartzen den momentutik, objektuak berak fetitxearen kategoria eskuratzen du, hau da, objektua bere balio errealetik -beharrak asetzerara begira objektuaren erabilerarekin lotzen den horretatik- askatu eta berezkoa ez zaion balio bat esleitzen zaio. Horrela, harreman interpersoneletan aurrekoak gizakien kualitate errealean alienazioa suposatzen du, berezko ezaugarri horiek balio gabetzen direlarik subjektu sozial gisa hartzen duten balioa dela-eta. Gizarte kapitalistan, beraz, norberak duen rolari egozten zaion balio sozialak zehazten du pertsonen arteko harremana. Hori dela eta, laguntasuna edota ezkontza, esaterako, beste pertsonak norberarentzat sozialki duen trukerako balioaren arabera izango da, ezer baino lehen; bigarren plano batean geratuko dira, hortaz, ezaugarri pertsonalak. “Hay, pues, también, en este plano de la relación interpersonal, una dialéctica falsa, inobjetiva, que conduce a la alienación del ser real del hombre por su “representatividad” como objeto social” (Castilla del Pino, 1969: 38).

- **Nietzsche**

Nietzscheren pentsamendu filosofikoaren oinarrian filosofiaren historian zehar, Platonetik hasita Modernitateraino -Heraklito salbu-, indarrean egon den arrazionalismoari egiten dion kritika aurki dezakegu. Aipaturiko kritika nietzschearra, bereziki, *El crepúsculo de los ídolos* (1886) lanean jasotzen da, eta obra honetako zenbait pasarte izango dira gaurkoan jorratuko ditudanak, batez ere.

Ezer baino lehen, “La razón de la filosofía” atalean, pentsalari alemanak errealitateari egotzi izan zaion izaera estatikoa jartzen du mahai ganean. Filosofoek ez dute ulertu izan errealitatea etengabeko mugimendu zein eraldaketa gisa (Nietzschekek bilakabidea deritzona); kontrara, arrazoiak emandako kontzeptuekin harrapatzen saiatu izan dira “izatea” den hori. Kontzeptu horiek, aldiz, tradizio filosofikoko pentsalarien asmakuntzak direla defendatzen du Nietzschek, “errealitatea bere baitan” delako nozio hori beraiek asmatu eta beraientzako egina den errealitatea besterik ez delarik. “Benetako mundua”-ren ideia horrek filosofiaren historian zehar izandako bilakaeran sakontzen du “Cómo el «mundo verdad» vino a reducirse al cabo en una fábula” atalean, Platon, Kristautasuna, Kant edota positibismoa ekarriz gogora.

Aurrekora itzuliz, bilakabidea edo agertzen dena aparienzia gisa kontsideratzea izan da filosofoen akats nagusia, autore alemanaren ustetan. Bide horretatik, aparentziazko izatea-izate erreala dikotomia ukatzen du pentsamendu nietzschearrak, izatea ez baita munduaren mugimendutik at dagoen zerbait. Guzti horretatik honakoa ondorioztatzen du: “el mundo de las apariencias es el único real, el mundo verdad ha *sido añadido por la mentira*” (Nietzsche, 1886: 33). Eta zenbait atal beranduago gehitzen du: “dividir el mundo en un mundo real y un mundo de apariencia ya sea a la manera del cristianismo, ya al modo de Kant (...), no es más que una sugestión de la decadencia, un síntoma de la vida descendente” (Nietzsche, 1886: 37).

Honekin batera, gauzen benetako zerizana arrazoimenaren eskutik ezagut daitekeenaren ideia tradizio mendebaldarraren oinarrian aurki daiteke, eta honen aurrean, Nietzschek arrazoiaren hegemonia kritikatzeko du, zentzumenei garrantzia egotziz; izan ere, zentzumena dira munduan agertzen diren gauzen sorrera, desagertzea nahiz aldaketa agerian uzten dutenak.

Bestalde, baina aurrekoan sakonduz, Nietzschek hizkuntzaren kritika garatzen du. Hizkuntza arrazoiaren sareetan preso dagoela dio, fetitxismo zakar bat ematen baita, tradizio filosofikoaren kontzeptuak gehiegi gurtu izanak eraginda. Horrela, autoreak Marxek baliatzen duen fetitxismo terminoa berhartu eta bere tesi filosofikoekin uztartzeko saiakera egiten du, mendebaldeko filosofian erdigunean jarri ohi diren kontzeptuei -batasuna, identitatea, substantzia, kausa, izatea, eta abar- berezkoa ez zaien balio bat egotzi izan zaiela agerian uzten duelarik.

(...) creemos en el yo, en el yo como ser, en el yo como substancia, y proyectamos la substancia del yo y la creencia en él sobre todas las cosas... así es como creamos el concepto de *cosa*. (Nietzsche, 1888: 36)

Hau da, subjektuaren eta subjektutik kanpo dagoen errealtatearen arteko bereizketa bat gauzatzen da hizkuntzaren bitartez. Hori dela eta, hasiera batean bat edota bakarra zen bilakabidea (“devenir”) orain elkarrekiko ezberdinak diren bi gauza gisa aurkezten da gramatikaren eskutik: subjektua -ekintzaren kausa- eta predikatua -ekintza-. Hortaz, gure zentzumenek zerbait hautematen duten momentuan, arrazoiak zerbait hori guregandik at dagoen substantzia bezala identifikatzen du eta, beraz, objektu hori pertzibitzen duen agente edota autorea bilatzera behartuta ikusten da gure burua (subjektua). Horrela, nia-ren noziotik eratzen du arrazoimenak *gauza*-ren kontzeptua, kausa-efektu erlazioa sortuz.

Ikusi dugunez, hizkuntzaren gramatika arrazoi gailentzen da. Hortaz, subjektu-predikatu eskema gramatikaetik subjektu-objektu egitura ontologikorako bilakaera ematen da. Honen aurrean, Nietzschek beharrezkotzat jotzen du gramatikarekiko sinismena gainditzea, tradizio filosofikoak eratu dituen eta pentsamendua zein hizkuntza menperatzera iritsi diren jainko edo idoloetatik askatzera begira. Ondorengo esaldiarekin amaitzen du “La razón de la filosofía” ataleko V. azpiatala: “temo que no nos libremos jamás de Dios, puesto que creemos todavía en la gramática” (Nietzsche, 1886: 36).

Hortaz gain, Nietzschek, “La razón de la filosofía” atalean, zentzu historiko eza egozten die filosofoei. Izatea bilakaerarik gabekotzat hartzen dute. Bide horretatik, gizakia ere aldaketarik gabeko ente gisa ulertzen dela esan dezakegu. Honela adierazten du *Aurora* lanean autore alemanak:

«No tengo ni la menor idea de lo que *hago*. No tengo ni la menor idea de lo que *debo hacer*». Tienes razón, pero puedes estar seguro de una cosa: de que *eres tú quien lo hace*, en cada momento de tu vida. (Nietzsche, 1879-1881: 114)

Jiménez Morenoren arabera, Nietzscherengan “el hombre es, él mismo, producto del hacerse sucesivo en su existencia” (Jiménez, 1994: 53). Gizakia, beraz, ez da finkoa den zerbait, eraldatzen dihoa, bere burua egiten, eraikitzen. Hori dela eta, bizitzaren bilakabidearen funtsa norberaren etengabeko gairipena da. Norbere burua garatzeko, eraldatzeko nahimena botere-nahiean gorpuzten da, zeina bizitzaren oinarria den, filosofo alemanarentzat. Nietzscheren “botere-nahia” terminoa ezin da besteekiko jokabide biolento nahiz menperatzaile gisa ulertu, baizik eta bizi-errealitateari berezkoa zaion zerbait bezala, oinarrian hedapenerako joera bat galdegiten duena. Horrenbestez, botere sentrazioak bizitzan zein bere eginkizunean segurtasuna eta konfiantza ematen dio norbanakoari (Jiménez, 1994: 58). Botere-nahia izaki bizidunetan -orokorrean- ematen den joera litzateke, norberak bere burua dagokion esparruan garatzekoa. Dena den, gizakiarengan hartuko du honek, bereziki, bere hedapen edo dimentsio handiena, gizakia baita beti gehiagora aspiratzeko ahalmena duena.

Honen aurrean, Nietzschek mendebaldeko gizakiaren baitan bereizketa bat burutzen duela adieraz liteke: ahulak eta indartsuak. Lehenek bigarrenak hartzen dituzte beraien menpe, haien moralak unibertsaletan inposatuz. Berdintasuna, gupida, pena, errua... izango dira ahulen balioak. Ahulen moralak, bereziki, moral kristauarekin lotzen du autoreak, Kristautasuna hartzen baitu mendebaldeko balio moralak moldatu dituen agente nagusi bezala -erlijio kristauarekin batera, sozialismoa eta demokrazia ere aipatzen ditu-. Balio moral horiek ez dute ahalbidetzen botere-nahia erdigunean jartzea; horrela, autosuperazioa ezerezean geratzen da. Horrenbestez, ahulen ulermen eta jokabide marko horrek bizitzaren kontra egiten du. Hori dela eta, Nietzscherentzat ezinbestekoa izango da aniztasuna eta bizitza -eta honi atxikita dihoan botere-nahia- berhartu eta horien alde egitea. Ahuldadearen adierazle den moralarekin amaitzea izango da eman beharreko lehen pausoa. Honek nihilismora garamatza, balioen basamortura. Dena den, beharrezkotzat joko du Nietzschek nihilismotik igarotzea, baliorik gabeko errealitate horrek ahalbidetzen baitu balio berriak eraikitzen joatea. Horretarako, “gairizakia”-ren ideia dakar, gizakiaren gairipena pertsonifikatu eta, honekin batera, balio berrien gainean eraikitako errealitatea ahalbidetuko duena: “alguna vez, sin embargo, en una época más fuerte que este presente corrompido, (...) tiene que venir a nosotros el hombre

redentor, el hombre del gran amor y del gran desprecio, el espíritu creador” (Nietzsche, 1887: 123).

- **Heidegger**

Martin Heideggerrek ekoizitako obra osoan zehar erdigunean egongo den auzia izateari buruzkoa da.

(...) desde los comienzos del pensamiento occidental, la filosofía formula el problema del *ser del ente*, es decir, de aquello que constituye el ente como tal (...); pero al plantearse este problema el pensamiento tiende inmediatamente a resolverlo de una manera errada” (Vattiano, 1986: 61-62).

Pentsamenduak arazo hori modu okerrean konpontzeko joera aipatzerakoan ondorengo adierazi nahi da: pentsamenduak izatea enteen izaera edo esentzia komunarekin identifikatzen duela, errealitateko ente orok partekatzen duen horretatik abiatuta eraikitzen den kontzeptu orokor eta abstraktu gisa ulertzen dena. Enteak, ordea, presentzia soil bezala hartzen direnez -presentzia agertzen den, irauten duen hori modura ulertuta-, mendebaldeko filosofiaren historia osoan zehar izatea ere era horretara kontzebitu izan da. Horrela, Vattimoren hitzetan, “el término metafísica viene a convertirse en sinónimo de olvido del ser” (Vattimo, 1986: 62), hau Heideggerrek ondoren garatzen duen filosofian zentralitatea hartuko duen kontzeptua izanik. Filosofiaren historian zehar, beraz, izatea ahaztu dela aditzera ematen du autoreak.

Aipatitakoari jarraiki, “Superación de la metafísica” artikuluan, ontologiak hartzen duen forma modernoa filosofia trszendentaletik abiatzen den ezagutzaren teoria dela aipatzen da. Ontologia modernoak ondorengo pentsamendu edo nozioan du bere jatorria: entea errepresentatzen edo ezagutzen duen horrentzako presentzia gisa hartzen da. Bide horretatik, ezagutzaren metafisika, finean, objektuaren metafisika dela aditzera ematen du Heideggerrek; hots, entea objektu gisa, objektua subjektu batentzat. Modernitatean zentralitatea hartu duen subjektu ezagutzaileak, teknikaren bitartez, errealitatea/natura objektu bilakatu du, objektualizazioa eman da. Aristotelesek egiten duen *physis* eta *techné* kontzeptuen bereizketatik abiatuta, filosofo alemanak izatea *physis*-arekin identifikatzen du, zeinak

mugimendua duen printzipiotzat; *techné* delakoak, ordea, mugimendua kanpokoak, subjektuarekiko at dagoen printzipio gisa ulertzen du. Esan daiteke azken hau -hots, teknika-izango dela filosofia modernoan izatearen adierazpen metafisikoa.

Filosofo alemanaren obran zehar ikus daitekeen bezala, ez dago izatearen gaineko behin betiko erantzun bat. Izatea denbora eta espazio jakin batean aztertu behar da, garai batetik bestera izatea modu ezberdin batean agertzen baita. Hori dela eta, behin eta berriz galdetu behar da testuinguru zehatz horretan izatea zer den edo honek zein forma hartzen duen. *Ser y tiempo* (1929) obran, izatearen auzian sakontzeko asmoz, ente zehatz bat hartzen da analisirako objektu gisa -gizakia, alegia-. “El ser del hombre consiste en estar referido a posibilidades; pero concretamente este referirse se efectúa no en un coloquio abstracto consigo mismo, sino como existir concretamente en un mundo de cosas y de otras personas”. Hau da, “el hombre está <<situado>> de manera dinámica, (...), en la forma del <<proyecto>>” (Vattimo, 1986: 27-28). *Dasein* kontzeptua -”ser ahí”, “ser en el mundo”- baliatzen du Heideggerrek gizakiaren fundamentu edo egitura existentzialari erreferentzia egiteko.

Bestalde, Hegelekin metafisikaren akabantza hasi zela adierazten du; aldiz, Nietzsche izango da, autorearentzat, metafisikaren akabantza gorpuzten duen pentsalaria. Heideggerren arabera, Nietzschek filosofia modernoari kritika egin eta metafisika gainditzeko asmoa izan zezakeen arren, metafisika egiten jarraitzen du, azken pentsalari modernoak izanik.

Nietzscherentzat, Platonismoaren aurka, sentsiblea dena benetako mundua da eta suprasentsiblea mundu, aldiz, egiazkoa ez dena. Ustez metafisika bera gainditzen duen eskema nietzschearen hau metafisikoa dela defendatzen du Heideggerrek -”es solo el definitivo enredo en la metafísica” (Heidegger, 1939: 247)-. Hasiera batean badirudi transzenditzen duen hori deuseztatzen dela, sentsualitatea erdigunean jarriz; dena den, suprasentsiblea, botere-nahi gisa, askatu eta aktibatu egiten da.

Hontaz gain, Nietzschek bizitzaren oinarrian jartzen duen botere-nahia, finean, nahiaren nahia dela adierazten du Heideggerrek. Horrela, geratzen dena azkenean subjektuaren nahia da. Bestalde, Nietzschek botere-nahiaz hitz egiterako orduan mahai gaineratzen dituen egia eta artearen kontzeptuak teknikaz mintzatzeko beste termino batzuk besterik ez dira izango.

Hori dela eta, planteamendu nitzschearekin oraindik ez da lortu mendebaldeko tradizio metafisikoa gainditzea, haren azken adierazlea besterik ez da izango hau.

- Bibliografía

CASTILLA DEL PINO, C., (1969), *Psicoanálisis y marxismo*, Alianza Editorial, Madrid.

GRACIA, J., STELLINO, P., TAMARIT, I., (2010), *Estudio sobre El crepúsculo de los ídolos de F. Nietzsche*, Universitat de València.

HEIDEGGER, M., (1927), *Ser y Tiempo*, Trotta, 2012, Madrid.

HEIDEGGER, M., (1929), *¿Qué es Metafísica?*, Alianza Editorial, 2003, Madrid.

HEIDEGGER, M., (1939-1949), *Conferencias y artículos*, “Superación de la metafísica”, Serbal, 1994, Bartzelona.

JIMÉNEZ MORENO, L. (1972), *Nietzsche*, Editorial Labor, Bartzelona.

MARX, K., (1844), *Manuscritos: economía y filosofía*, Alianza Editorial, 1980, Madrid.

MARX, K., (1867), *El Capital*, EDAF Ediciones, 1970, Madrid.

NIETZSCHE, F., (1879-1881), *Aurora*, M. E. Editores, 1994, Madrid.

NIETZSCHE, F., (1886), *Más allá del bien y del mal*, Alianza Editorial, 2016, Madrid.

NIETZSCHE, F., (1887), *La genealogía de la moral*, Alianza Editorial, 1972, Madrid.

NIETZSCHE, F., (1888), *El crepúsculo de los ídolos*, Edicomunicación, 1999, Bartzelona.

VATTIMO, G., (1986), *Introducción a Heidegger*, Editorial Gedisa, 2002, Bartzelona.